

FILOSOFIARAKO SARRERA II

AZTERKETA (2021eko ekaina, Ez-ohiko deialdia)

1. Egoera naturaletik autoritate politikorantz: gobernuaren auzia (1,5)
2. Dualismoaren aurkako argudioak (1,5)
3. Aukeramenaren auzia eta mundu mentala (1,5)
4. *Borondatezko morrontzari buruz*: egin ezazu testuaren deskribapen laburra eta ebaluaketa (1)
5. Platon, gobernu formarik egokienari buruz (1,5)
6. Tolstoi eta artearen definizioaren auzia (1,5)
7. David Humek, *Gustuaren araua* izeneko testuan, zenbait literatura-lanetako (edo artelanetako) protagonista diren heroi moralki gaitzesgarri edo arbuigarriei buruz (bere hitzetan, **heroi zakarrei buruz**) hauxe dio:

“...(heroi moralki gaitzesgarrien) bizimodu maltzurra deskribatzen baldin bada, orduan horrek poema desitxura dezake eta bertan benetako deformazioa eragin dezake. Ezin dut bat egin -eta ez dut bat egiterik- horrelako sentimenduekin: nahiz eta poeta horri barka diezaikedan bere garaiko bizimoduaren kariaz, *haren obra ez dut gogoko izango...*

... Ez dugu interesik horrelako heroi zakarren gorabeheretan eta sentimenduetan; bizioaren eta bertutearen arteko mugak horren nahasi ikustea *ez dugu atsegin*. Idazle horiei dagokienez, haien aurreiritziak aintzat hartuz, barkaberak izan bagaitezke ere, ezin ditugu haien sentimenduak onartu, ezta garbi asko gaitzesgarritzat hartzen ditugun haien pertsonaiak begi onez ikusi ere.”

Ados al zaude? Zein da zure iritzia? Zergatik? (1,5)